



ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián



Newsletter

2012ko Azaroko Newsletterra-29. Zenbakia

Jarraitu gaitzazu
Twitter-en

DSSn Diseinatua

Elkarrizketa

Nabarmenena

Gaurkotasuna

Plan estratéjico News

Ba al zenekien

DSSn DISEINATUA



Bisitatu bere weba.
<http://www.pantori.es/>

Pantori, tripontziaren jaki-gordailua

Argazkian kraska egiten duten ogietatik abiatu eta bonboiak, xixak, erreximentak, ardoak eta oliorarte...denetik salgai gourmetaren jaki-gordailurako. Pantorik bost egunetan zehar produktu ezberdinak erosteko aukera ematen du, modu erraz eta erosoan, eta ordenadore aurretik mugitu gabe.

Donostian dagoen Deustokabiren barnean jaiotako ekimena da hau, eta proiektu berritzaileen garapen kooperatiboa bilatzen duten enpresen arteko elkartzeko guneak eskaintzeko apustuari erantzuna eman nahi dio. LA SALSERA eta LA BICI ROJA enpresa gazteak dira bere sortzaileak.

Elkarrizketa



Xabier de la Mazari elkarrizketa.

Hutsuneak osatu behar dira aurrea hartuz eta proiektu berriak abian jarritz

Ekintzailea da lanaldi osoz. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna den Xabier de la Mazak (Donostia, 1983) grina, lana, sena eta iphonean, ordenagailu eramangarrian zein gizarte sareetan ordu asko konbinatzen ditu.

Komunikabide ezberdinekin elkarlanean aritzen da, bai prentsa idatzian bai irratian eta telebistan ere, eta zenbaitek "hiriko bazter-nahaslea" dela dio. Gure ustez, PIRATAK mugimenduarekin batera, De la Maza joan den udako pertsonaia izan da. Besteak beste, The Loaf in a Box, Musika Parkean, Pintxos&Blogs, The Glutton Club, 365cities.org eta, duela gutxi, Pantori.es ekimenean atzean dago.

Elkarrizketa osoa irakurri [+]

Igo ^

Nabarmenena



Lanaren etorkizuna Europan

Etorkizunari buruz hitz egitea lanari buruz hitz egitea da, eta nahiz eta elkarri loturiko terminoak izan, esan genezake gaur egun lanpostu bat edukitzea etorkizuna izatea dela (guztiz segurua ez bada ere). Europa osoari eta, bereziki, hegoaldeko herrialdeei eragiten dien egungo egoera ekonomikoak agerian jarri du gai honi etorkizuneko ikuspegiarekin ekiteak duen garrantzia.

[Txostenak eta laburpena ikusi \[+\]](#)

[Igo](#)

Gaurkotasuna



Donostia eraikitzen, 1813-2013

Hilabete barru hasiko da Donostiaren sutearen eta berreraikitzearen bigarren mendeurrena. Oroitzapen ekitaldia lau ardatz nagusitan oinarrituko da: 1813an jazotakoa ezagutaraztea, gogoratzea, ospatzea eta berreraikitzea. Horretarako, ezinbesteko protagonista izango dira Donostiako hiritarrak eta haien partaidetza.

Izan ere, donostiarrak izan dira (elkarteen edo erakundeen bitartez, edo bakarka) oroitzapen ekitaldi horretarako ideiak proposatzeko (400 bat) ahalegin guztia egin dutenak.

[Albiste osoa irakurri \[+\]](#)

[Igo](#)




1912-2012, (bigarren)mendeurrenaren ateetan

Duela bi mende (1813-2013) jazotako hiriaren suteak eta ondorengo berreraikitzeak Donostiarentzat historikoa den beste data bat dakarkigu burura, 1912a, hain zuzen ere.

Amaitzean dagoen urte honetan hiriko hainbat eraikin eta azpiegitura adierazgarri 100 urte bete dituzte.

[Albiste osoa irakurri \[+\]](#)

[Igo](#)



Donostiak erosketa eta kontratazio publikoetan klausula sozialak ezarriko ditu

Helburua lan merkatutik baztertuta dauden pertsonak laneratzen bultzatzea, gizarte, ingurumen eta irizpide etikoak betearaztea eta lan, hizkuntz eta genero berdintasun eskubideak errespetatzea da.

Horrela, Donostiako Udala kontratazio arduratsuaren irizpideak dokumentu bakar batean batzen duen lehenengo udala bilakatu da. Kontratu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei klausulak nola aplikatuko diren argitzearren, gida bat eta aplikazio informatiko bat egingo ditu Udalak. Dokumentua, Gobernu Batzarrean onartu beharko da. .

[Albiste osoa irakurri \[+\]](#)

[Igo](#)



Donostiak Civitasen “Urteko Hiria” saria eskuratu du bere garraio iraunkorrarengatik

Aditu independenteek osatutako epaimahaiaik Donostia hiria aukeratu du Europan mugikortasun iraunkorraren inspirazio eta eremu horretan jarraitu beharreko adibide gisa. CIVITASen Urteko Hiria saria garraio iraunkorrangoaren alde Europan ematen den saririk garrantzitsuena da. Azken urteotan sari hori eskuratu duten hiriak, Donostiaren aurretik, Utrecht, Bolonia eta Gante izan dira. Juan Karlos Eizagirre Donostiako alkateak Gasteizen egin zen Civitas Forumen inaugurazio ekitaldian jaso zuen saria, Jon Albizu Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Mugikortasun zinegotziarekin eta Gerardo Lertxundi Dbuseko Zuzendari gerentearekin batera.

Albiste osoa irakurri [+]

Igo ^

Plan Estratégico News



Plana bertan egon zen...

Donostiako Estrategia Bulegoak hainbat ekitalditan parte hartzen du; batzuetan txostengile gisa, eta besteetan entzule gisa, gure jarduerarekin zerikusia duten gaiei buruz egunean egoteko. Ekitaldi horien artean, kongresuak, topaketak, lantegiak, ikastaroak eta jardunaldiak daude. Jarraian azalduko ditugu azken hilabeteotako adierazgarrienak.

Albiste osoa irakurri [+]

Igo ^

Agenda



EQUICIUDAD 2012

Jasangarritasun, hiria eta arkitektura Biltzarra.
Abendua 13-14.
Carlos Santamaria Aularioa. UPV-EHU.
Donostia.
Informazio gehiago: <http://equiciudad.es/>



INTA36 PARIS

Hiri-politikak eta ekonomi garapen arduratsua.
Abendua 16-18.
Paris.
Informazio gehiago: <http://www.inta36.org/en>


Prensa laburpena

PUNTO RADIO

[Kepa Kortari elkarriketa PUNTO RADIOko](#)
[Contigo en la Playa saioan](#)

Sail berri bat ireki dugu, eta gure asmoa **etorkizuneko gure egoeraz hausnarketa irekia egitea da.**

Atentzioa eman digu 2050 urterako Gipuzkoako biztanleria-piramidearen* azterketak.



Iturria: EUSTAT. Geuk landuta.

Eta kezkatu egiten gaitu, halaber, etorkizunean biztanleriaren hazkundea adin handiko pertsonetan kontzentratuko dela jakiteak. Espainiako Estadística Institutuko (INE) aurreikuspenak betetzen badira, 2052rako hiru pertsonatik batek 64 urte baino gehiago izango ditu, adin horretako taldea % 89 handituko delarik.

Era berean, kezagarria da hemendik 40 urterako aurreikusten den biztanleria aktiboaren txikiagotzea. Izan ere, 2052rako 9,9 milioi pertsona gutxiago egongo dira lan egiteko adinean. Gainera, 0 eta 15 urte bitarteko bi milioi pertsona gutxiago izango dira**.

*2050eko biztanleria-piramidea honako aldagai hauek aurreikusten dituen agertokiaren arabera egin da (2050 urterako emakume bakoitzeko 1,25 haurreko emankortasuna; gizonezkoen bizi-itxaropena 77,2 urtekoa eta emakumeena 86,0 urtekoa, eta biztanleria 2010 urtetik aurrera migrazio-mugimenduei itxita egotea).

** INEren 2012ko biztanleriaren etorkizunaren txostenetik ateratako datuak. Adierazitako datuak, egungo joera demografikoek bere horretan jarraituz gero, hurrengo urteetan Estatuan egongo den biztanleriaren tamainaren eta egitura demografikoaren simulazio estatistikoa dira.

Igo

Aldizkari hau jasotzen jarraitzeko izen eman nahi baduzu, [sakatu hemen](#)

Zure erregistroa ezeztatu nahi baduzu, [sakatu hemen](#)

Email honen edukia ikusi ezin baduzu, kontsulta ezazu www.donostiafuture.net

Datuen babesa | Lege oharra